

TOLOSA ▶

Gariren 'O-tik' Leidorren

Disko berria
aurkeztuko du ▶ 2



Bihar irekiko dituzte Zizurkilgo Eskaltzu mendiko larre lurberrituak

IREKIERA ▶ Ziortzako langan izango da larre irekiera, eguerdian, Eskaltzugain elkarteak antolatuta ▶ 4



Udalak hamabost urterako lortu dituen Eskaltzu mendiko larreak paraje eder honetan daude. HITZA

JABIER BARRIAZARRA



Pou anaien '7 paret, 7 kontinente', Gure Txokoan

TOLOSA ▶ Elkartearen 75. urtemugaren baitan, bi anaia gasteiztarrek bere eskaladen ikus-entzunezkoak emango dituzte ▶ 3

AMASA ▶

Etzi goizean, Loatzoko XIII. Igoera- Jaitsiera

Izena Uxo-tokin
eman behar da ▶ 4

TOLOSALDEA ▶

HITZA Pilota Txapelketa datorren astean hasiko da

240 haur eta gazte izango dira
partaide bost herritako frontoitan ▶ 5



Iazko irabazle batzuk. I.TERRADILLOS

LEITZA ▶

Federazioak 2. postua 'eman' dio Aurrerari

Bihar hasiko du
igoera fasea ▶ 7

MUSIKA ▶

Monologoak gaur eta hilaren 29an Iratxo tabernan

Iratxo tabernako arduradunak askotariko ekitaldiak ari dira antolatzen hilabete hauetan, eta lehengo astean Carlena talde tolosarrak eskaini zuen kontzertuaren ostean, gaur izango da bigarren ekitaldia. Izan ere, ETB-2ko *Vaya semana* saio entzutetsuko Kike Bigurik monologo eskainiko du bertan, 23:00etatik aurrera. Datorren astean ere beste monologo bat ikusteko eta entzuteko aukera izango dute bertara biltzen direnak, hilaren 29an, ostiralarekin, saio berean parte hartzen duen beste lagun batek, Andoni Agirregomezkortak —telebistako iragarki arrakastatsuan «Iepal» esanez agertzen zena— eskainiko duelako ikuskizuna Plaza Berriko taberna horretan, ordu berean.

MUSIKA ▶

Lau talde ariko dira asteburuan Bonberenean

Bonbereneak astero antolatzen dituen kontzertuen harira, beste lau talde entzuteko eta ikusteko aukera izango dute asteburu honetan eskualdeko musikazaleek Bonbereneako kontzertu aretoan. Gaur, ostirala, Zea Mays taldeak eskainiko du emaldia lehenik eta behin, eta jarraian Madrilgo Electra taldeak jardungo du. 22:30ean hasiko da kontzertua. Bihar, berriz, Manolo Cabezabolo ariko da hasteko, eta ondoren Madrilgo King Putreak taldeak joko du. Biharko kontzertuak ere 22:30ean hasiko dira. Apirilaren bukaera bitarte talde gehiagok ere jardungo dute: Neubat etorriko da hilaren 29an Bonberenera, eta 30ean Tsezne eta DJ Amsia, besteak beste.

MUSIKA ▶

Gari musikariak disko berria aurkeztuko du gaur Leidor aretoan

22:30ean hasiko da; 'O-tik' diskoko abestiak eskainiko ditu bere taldearekin; sarrerak salgai izango dira han 9 eurotan

IRATXE ETXEBESTE

Bizitzak ez du amore ematen, inon, inola; aurrera egin gogo du, atsedean gabe, zoraturik, neurririk ez baitu. Bizitzak ez du etsitzen, ez bada muga latzetan, ez badugu egiten amets oihanarekin egiten du, desertuarekin... Bernardo Atxaga idazle asteasuarraren hitzak dira horiek, eta Bizitza izenarekin kantura moldatu ditu Garik O-tik disko berrirako.

«Musika eraginkorrek, normalean, sakonak, ekidiezinak, zuzenak eta miresgarriak izaten dira; bertan, konposatzailearen etorria eta interpretaren talentua batzen dira, edertasuna lortzeaz gain, publikoaren sentimenduei bat-batean erasotzeko, hunkidurak sortuz batzuetan, baina beti gure barruan leku eginez. Abesti onak, oroimen onak bezala, gure altzoan bizi dira betiko». Horixe idatzi zuen norbaitek behinola musikariez eta haiek sortutako kantuez jardun beharra zuen.

Bada Gari bere musikaren tankerakoa da izan. Zeren eta ustekabeak dira biak: berehalakoak eta zuzenak. O-tik (Elkar, KD-678) izeneko azken lan horretan bere ahotsaren sensualitate iradokigarrian barenbestuz, abilezia, adore eta sinisgarritasun handiz ematen die irtenbidea kantuei. Eta ideia kaotikoak, amets hautsiak, maitasunaren gordinkeria, iraganeko oinazeak... gozamenarako kantu bilakatzeko Garik duen magia nabaria da disko horretan. Estilo dotorea



Gari-k O-tik disko berria aurkeztuko du gaur gauean Leidor aretoan bere taldearekin batera —argazkian—. HITZA

'O-TIK' ▶

Gaia. Gari-ren O-tik diskoa aurkezteko kontzertua.

Eguna. Gaur, ostirala.

Ordua. 22:30.

Herria. Tolosa.

Tokia. Leidor aretoa.

Sarrerak. Salgai dira Kultur Etxean—Gazte Txartelarekin 6 euro; bestela, 9 euro—.

Leihatilan ere izango dira salgai gauean, 9 eurotan.

Gari-ren taldean parte hartzen duten musikariak.

- ▶ Gari (ahotsa, kitarra).
- ▶ Hasier Oleaga (bateria).
- ▶ Iosu Izagirre (baxua, kontrabaxua, koroak).
- ▶ Juanma Gereñu (kitarra, koroak).
- ▶ Jean Marie Ecay (kitarra espainola).
- ▶ Koldo Uriarte (pianoa, koroak).
- ▶ Kepa Martinez de Albeniz (akordeoia, teklatura, koroak).

eta lengoiaia ulergarria erabiltzen ditu, azkenean erakargarri bezain beldurgarri diren bat-bateko emozioak deszifratzeko.

Tolosan aurkeztuko dute gaur Garik eta bere taldekideek disko berri hori, Leidor zinema aretoan, 22:30etik aurrera. Sarrerak salgai dira Kultur Etxean—gaur eguerdia bitarte—, 9 eurotan, eta kontzertuaren aurretik leihatilan bertan ere izango dira salgai. Aldez aurretik Gazte Txartelarekin erosiz gero 6 euro ordaindu beharko dituzte herritarrek.

O-tik lan horren garapenean talde heldu, konpaktu eta profesionala batu da, «pultsuak teinkatuz edo laxatuz, musikaren bihozkaidei gorputz emateko». Bakardadean jorratutako esperientzia luze baten emari oldartsua da honako diskoa. O-tik: emankorra, beroa, biluzia eta ausarta. Bizitzak bezala, Garik ere ez du amore ematen.

ERLIJIOA ▶

Gaixoen Eguna egingo du maiatzaren 1ean Elizak

Santa Maria parrokian hainbat ospakizun antolatu dituzte egun hori aitzaki hartuta

I. ETXEBESTE

«Aurretik, maiatzaren lehenarekin batera, Gaixoen Eguna egingo du Elizak». Halaxe esan dute Santa Maria parrokiako Osasun Pastoraltzako arduradunek. *Osasungintzako profesionalak: behar ditugu. Behar gaituzte* lelopean ospatuko dute, hain zuzen ere, Gaixoen Eguna.

Egun horren helburua Kristau Elkarteak «gaixoen egoeraz jabetzea eta gaixoaldian senide hurbiltasuna haiei azaltzea» dela jakinarazi dute, eta egun hori dela eta Santa Maria parrokiak *Gaixoen Igurtzia* izeneko sakramentua ospatuko duela, hilaren 30ean, 17:00etan izango den eukaristian.

Aurretik, hilaren 27an, *Gaixoen Igurtzia* sakramentua zer den eta norentzat den azaltzeko hitzaldia izango da parrokan bertan, 16:30ean euskaraz eta 20:00etan gaztelaz. Eliztar guztiei egin diete ospakizunetan parte hartzeko gonbita.

OHARRA ▶

Tolosako M-28 udaltzainak atzo argitaratu zuen gutunari erantzunez, kazetariak une horretan ikusi zuena islatu besterik ez duela egin azaldu nahi du Hitzak. Egunean zehar jende askok «arazoak» izan zituela onartzen du gutunean eta «zenbait kasutan» lagundu zuela dio. Kazetariak ikusi eta kontatu zuen kasuan hori ez zen gertatu, «atzetik zetorren beste pertsona batek» ireki behar izan zuen, udaltzainak berak onartzen duenez. Hitzak badaki Udaltzainak egun horretan —eta urte osoan— lan handia egiten duela herriaren alde eta bere lana txalotzekoa dela, Hitzak kasu askotan bere orrietan islatu izan duen bezala. Hitzak ere gertaerak argitu nahi ditu, eztabaidetan sartzeko asmorik izan gabe.

BANAKETA ENPRESA batek banatzaile bat behar du Andoain eta Billabonan.

LAN-BALDINTZAK :

- Astean sei egun. Asteartetik igandera.
- Bi aste lan, bat jai.
- Egunean 3:30 ordu.
- Goizeko 04:30etatik 08:00etara.

Ezinbestekoa da autoa izatea

Apirilaren 25ean, astelehenarekin, deitu telefono honetara 943 30 43 41

iragarki laburrak ▶



Leitza. Txoko tabernaren gainean pisua salgai. Lau logela, bainugela eta bi balkoi. Oso eguzkitsua. 177.298,57 euro.

Leitza. Huarte Gotzai kalean lau logelako

ebebizitza salgai. Igogailu berria.

168.286,39 euro.

Leitza. Manuel Lasarte kalean hiru logelako pisua salgai. Bi bainugela eta bi balkoi. 192.323,87 euro.

Leitza. Zabaleta etxean duplexa salgai. Beheko sua, sukaldia eta bi bainugelak jarrita. Trastelekua. 246.414,97 euro.

Leitza. Arakindegi parean eraikitzen ari diren ebenezitza berrietan pisua salgai. Lau logela, bi bainugela eta garajea. 264.445,33 euro.

ESKALADA ▶



Eneko eta Iker Pou mendizale eta eskalatzaileak. JABIER BARRAZARRA

Hormetatik zintzilik, munduari bira

Eneko eta Iker Pou anaien '7 paretia, 7 kontinente', gaur, Gure Txokoan

LEIRE MONTES

«Kontinente bakoitzeko hormarik garrantzitsuen edo zailena era askean eskalatzea. Horma handietan egiten den zailtasun goreneko eskalada mugetatik haratago eramatea. Munduari bira egitea, bira bertikala». Hala laburbiltzen dute Eneko eta Iker Pou anaiek *7 paretia*, *7 kontinente* proiektua. Gure Txokoaren urteurrena dela-eta, ekimenaren inguruko ikus-entzunezkoa ikusteko aukera izango da gaur Tolosan. Baita haiekin solasean aritzeko ere. Elkartean bertan izango dira mendizale eta eskalatzaileak. 20:00etan hasiko da saioa.

2003. urtean ekin zioten Pou anaiek *7 paretia*, *7 kontinente* proiektuari. Yosemiteko Capitan paretan *El Niño* (8a+/b) bi-dearen mundu mailako bigarren errepikapena lortu zuten ekainean. Urte berean, Europari zegokion horma Asturiasko Bulneseko Picuan kokatu zuten, eta *Zunbeltz* bidea kateatu (8b+, 500 metro). 2004an

menderatu zuten proiektuaren hirugarren horma, Madagaskarren: Kelyn Lyn Hillek zabalduko *Bravo les filles* errepikatua eta era askean egin zuten. Irailean, Yosemiteko *The Nose* (8b+) eskalatu zuten, bi luze izan ezik, beste gutia era librean kateatuz. Aurten, azkenik, Australiako *Totem Pole* eskalatu dute. Zetatik laugarrena lortuz.

Hautatutako hormek berezko nortasuna eta zailtasuna dute, «edonor asetzeko modukoak banan-banan ekiteko-tan». Gainera, tokian tokiko naturak txunditurik utzi ditu: «Protagonistak ikusle bilakatu gara naturak eraiki dituen eskenatoki ikusgarrienetan».

Muturreko eskia

7 paretia, *7 kontinente* ikus-entzunezkoaz gain, muturreko eskia inguruko beste bat ere eskainiko dute Pou anaiek. Eneko bere trebetasuna argi utzi du maiz, eta eski jaitsiera itzelak lortu ditu.

IRTEERA ▶

Arantzazuko santutegira, Irazkirekin

Irazki elkarte kulturantzak Arantzazuko santutegira irteera antolatu iganderako. Euskal Herrian Murgilduz proiektuaren barruan dago irteera hau. «Kultura eta lurralde desberdinetako jendeen arteko harremanak bultzatzea eta hartzen gaituen gizartea eta herria eza-gutzea» du helburu ekimenak. 09:00etan abiatuko dira, Santa Klaratik. Izen-ematea 678 64 85 93an (Garikoitz).

HEZKUNTZA ▶



IAk deituta, 90 bat lagun elkartu zituen manifestazioak. HITZA

Ikasleen eskubideak aldarrikatuz

Ikasle Abertzaleek (IA) deituta, Tolosako ikastetxeetako 90 bat ikasle manifestazioa egin zuten atzo herriko kaleetan, beren eskubideak aldarrikatzeko. IAk nazio mailan deitutako mobilizazio egunarekin bat egin zuten horrela gazteek. *Gure pazientziak muga dauka*; *ikasleok zaplastekoa* leropean, ikasleek dituen eskubideak aldarrikatzea du xede ekimenak: hezkuntz eskubideak, hizkuntz eskubideak, kultur eskubideak, Euskal Herrian ikasteko, hezkuntza prozesuan subjektu izateko, hezkidetzara eskubidea, ikas-baldintza duinetan ikasteko, eskubide demokratikoak, eta kolektibo gisa jarduteko eskubidea. *Euskaraz ikasi*, *Euskal Herria ikasi* leropean elkartu ziren Tolosan. «Horrela ezin daiteke ikasi. Horrela ezin daiteke bizi. Gure eskubideak bermatu behar dira, euskal ikasle orori bere eskubideak aitortu behar zaizkio. Eta hori lortzera goaz!», adierazi zuten.

ERAKUSKETA ▶

Gonzalez eta Labaien gaurtik Aranburun

Miren Gonzalez eta Matxin Labaien margolari tolosarrak elkarrekin egindako *Marrakziak* erakusketara zabalduko dute gaur, 19:30ean, Aranburu Jauregian. Lanak maiatzaren 28a arte egongo dira ikusgai bertan, asteartetik larunbatera, 17:30etik 20:30era.

MENDIKO ESKIA ▶

Ormazabal, 3. Espainiako taldekako lehian

Joan den igandean, hilaren 17an, II. Peña Guara txapelketa jokatu zen Formigalgo eski estazioan. Taldekako Espainiako Txapelketa honean Joseba Ormazabalek hartu zuen parte. 3. sailkatu zen tolosarra; Juan Maria Vendrelekin osatu zuen bikotea, eta 2:02:58ko denbora egin zuten biek. Toti Besek eta Alfonso Gastonek osatutako bikoteak irabazi zuen lehia, 1:59:18ko denborarekin.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

- Alegialdea.** Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.
Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarraldea. Osasun etx.: 672411
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.
▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
▶ San Esteban: 00 68 00
▶ Gernikako arbola: 00 69 00
▶ Amaroako dispen.: 67 26 37
▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdia)
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
▶ DYA: 67 25 36
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
▶ Ertzaintza: 53 88 20
Villabona-Aiztondo.
Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

- ▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
▶ Taxia: 67 04 20
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

- ▶ Galtzaundi: 65 50 04
▶ Aurrir aldizkaria: 30 07 32
▶ Tipi ttapa ald.: 948 631888
▶ Txolarre irrata: 943 69 80 38
▶ Karrare irrata: 948 61 09 14

EUSKALTEGIAK

- ▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Gaur.** Santamaria, I. Nafarroa etorb. 2 (Tolosa). 943 65 46 10
Erbiti. Lizarraga 7 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

- Publizitatea.** 661 67 88 18.
tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
tolosa@tolosaldeko hitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info
Anoetaldea. 687 41 00 22
anoetaldea@tolosaldeko hitza.info
Ibarraldea. 687 41 00 32.
ibarraldea@tolosaldeko hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
alegialdea@tolosaldeko hitza.info
Leitzaldeko. 687 41 01 18.
leitzaldeko@tolosaldeko hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Igeltzeritza ofiziala. Mutil bat behar da, igeltzeritza ofiziala 2. mailakoa. Deitu 615 74 86 61era.

IKASTAROKAK



- Droga gabeko adikzioak: internet, telefono mugikorrek, sexua, jokoa, janaria, lana, erosketak.
 - Kale ekintza: nola lagundu nerabeei beraien bilakaeran.
- Telefonoa: 943 31 14 74 DONOSTIA
web orria: www.hezkide.org

ADUNA ▶

VIII. Pilota Txapelketaren finalak etzi

Aiztondoko VIII. Pilota Txapelketako finalak jokatu dira Adunan etzi, 16:30ean hasita, herriko frontoian. Kategoria bakoitzaren partidaren bukaeran eskuz jokatzeko pilotak zoketatuko dira. Topaketaren bukaeran txokolatada antolatu da guztientzat.

AIZTONDO ▶

Autobusa aurtengo Herri Urratsera joateko

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak autobusa antolatu du Herri Urratsera joateko. Maiatzaren 8an izango da Senperen. Izena emateko 943 69 39 30 telefonoan. Mankomunitateko herri bateakoa izanez gero, maiatzaren 3a arte; gainontzekoek, maiatzaren 4tik 6ra.

ANOETA ▶

Kontzertu bikoitza Gaztetxean

Anoetako Gaztetxean kontzertu bikoitza izango da gaur gauean. Iruñeko Kero-bia taldea eta Donibane Lohizuneko Izate taldeen eskutik izango dira musika emanaldiak 23:00etan hasita. Kero-biak Euskadi Gaztea-ko maketa lehiaketa irabazi zuen eta Izate finalista izan zen.

ANOETA-ALKIZA ▶

Nerea Herrarte ipuin kontalaria liburutegietan

Nerea Herrarte ipuin kontalarien saioak izango dira gaur arratsaldean. Galtzaundi Euskara Taldeak antolatu, Alkizako liburutegian 17:00etan eta Anoetako liburutegian 18:00etan. Anoetan, HHko 1. maila eta LHko 1., 2. eta 3. mailako haurrentzat zuzenduta dago.

ZIZURKIL ▶

Terry Lee Hale estatubatuarraren kontzertua gaur

Gaur gauean Terry Lee Hale estatubatuarraren kontzertua izango da Zizurkilgo Aurrera tabernan. Musika ikus-kizuna 23:00etan hasiko da. Antolatzaileek gonbitea luzatzen die etorri nahi duten guztiei, eta sarrera dohainik izango dela gogorarazten dute.

ZIZURKIL ▶ III. ANTZERKI ASTEA

Haurrak berriro izan ziren protagonista

'Euskara sencilloaren manifestoa' gaur, 22:30ean Zimiteyuan

I. GARCIA

Atzokoa egun berezia izan zen III. Antzerki Astearen. Hiru saio egin ziren. Goizekoan berriro izan ziren protagonista haurrak. Pedro Otaño eta Jesusen Bihotzako haurrek antzerkiak eskaini zituzten. Arratsaldean, Peter Roberts ezagunak *Mimarte* antzeztu zuen gaztez betetako Gurea antzokian eta Marsel magoak jubilatuentzako eskaini zuen magia ikuski-zuna.

Gaur beste antzezlan bat ikusteko aukera izango da, Zizurkilgo Goiko Zimiteyuan *Euskara sencilloaren manifestoa*, 22:30ean.



Eskeletako haurrek antzezle aritu ziren atzo Atxulondon. HITZA

AMASA ▶ KIROLA

Loatzoko Igoera-Jaitsiera, etzi

Uxo-Toki elkartetik izango da irteera eta bertan eman behar da izena

IMANOL GARCIA

Loatzoko Igoera-Jaitsiera izango da etzi goizean. Aurtengoa 13. edizioa izango da. Irteera goizeko 10:30ean izango da Uxo-Toki elkartetik eta kirolariek Loatzoko gainera igo beharko dute (631 metro) eta bertan ere Amasako plazara jaitsi. Gorako eta beheko bidea desberdina izaten da.

Izen-ematea igandean bertan egin behar da Uxo-toki elkartean. Ez da proban parte-hartzeagatik ezer ordaindu beharrik. Parte-hartzaile kopurua eguraldiaren menpekoa izan ohi da, baina 55-60 lagun inguruk ematen dute izena proba honetan.

Maila bakoitzean lehenengo hiruek sariak izango dituzte eta hogeita hamar lehenengoei seina euro emango zaizkie. Horrez gain, parte-hartzaile guztien artean zoketa bidez opariak banatuko dira: txuletak, oilaskoak, untxiak, arkumea, gazta, bakailaoa, afaria, ardo botilak... Bestalde, aipatzekoa da ikusleentzat ere doako hamaiketako banatuko dela bai Loatzon baita Uxo-Toki elkartean ere.

Iaz Ramuntxo Lamot sararra izan zen irabazlea. Ondoren Pello Izagirre asteasuarra izan zen eta hirugarrena Haritz Garin billabonatarra. Frogako errekorra Juan Mari Garin billabonatarra du. 2003. urtean lortu zuen 41 minutu eta 40 segunduko denbora.



Korrikalariak irteeran. U.URREAGA

SARIAK ▶

GIZONEZKOAK

Lehenengoarentzat. 90 euro, txapela, loreak,

oilaskoa, ardo botila eta txanpain botila.

Bigarrenagoarentzat. 60 euro, ardo botila, txanpain botila eta txuleta.

Hirugarrenagoarentzat. 50 euro, ardo botila eta untxia.

EMAKUMEZKOAK

Lehenengoarentzat. 90 euro, oilaskoa, txuleta, ardo botila eta txanpain botila.

Bigarrenagoarentzat. 60 euro, ardo botila eta txuleta.

Hirugarrenagoarentzat. 50 euro, ardo botila eta untxia.



Villabona - Kultura



— ANTZERKIA —
Glu-Glu produkzioak
'Cocidito Madrileño'
antzezlan

Apirilak 22 ostirala • gaueko 22:30ean
GUREA ARETOAN



Udal Kultura Batzordea



Gipuzkoako Foru Aldundia
E.A.S. (Euskadiko Antzerki Sarea)

HITZA PILOTA TXAPELKETA ▶

Badator berriz HITZA Pilota Txapelketa

240 pilotarik hartuko dute parte;
asteazkenean hasiko dira kadeteak

JOXEMI SAIZAR

Iaz hasitako esperientzia jarraituz, HITZA Pilota Txapelketa hasiko da datorren astean. Aurrera-Saiaz elkarteak antolatuta. Eskupilota haur eta gazteen artean eskualdean sustatzea du helburu —aspaldidanik egiten da txapelketa hau— eta horretan TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN laguntza du iaztik. Guztira 240 haur, gazte eta heldu izango dira partaide astero Tolosaldeko bost herritan jokatu diren partidetan, iaz baino askoz ere gehiago. Finalak sanjoanetan jokatu dira Tolosako Beotibar pilotalekuan.

Benjaminetan, alebinetan eta infantiletan 24na bikotek hartuko dute parte, kadetetan

40 pilotarik (banaka jokatu da) eta etorkizunekoetan (sub 22 deitzen diote) beste 24 bikotek.

Beheko hiru mailetan, eskolarretan —benjaminak, alebinak eta infantilak—, Tolosaldea eta Leitzaldeaz gain, Gipuzkoako —Azeitia, Goierri, Andoain, Urnieta, Hernani eta Donostia— eta Goizueta, Lesaka eta Baztango pilotariek ere parte hartuko dute. Kadeetan Altsasu eta Burlatako pilotariak izango dira partaidea, aipatutako herrietakoek gain. Etorkizunekoetan, lehen esandakoez gain, Gasteiz eta Bizkaiko ordezkariak ere izango dira jokatzeko. Jokalekuak iazko berak dira, mailen arabera: Alegia, Albiztur, Aduna, Bidegoian eta Tolosako Beotibarren.



lazio HITZA Pilota txapelketako irabazleak, sariak eta guzti, antolatzaile eta laguntzaileekin. I. TERRADILLOS

Datorren astetik aurrera

Datorren astetik aurrera beraz, astero pilotari gazteak ikusteko aukera izango da Tolosaldeko bost herritan. Asteazkenean, hilak 27, hasiko dira kadeetan Bidegoianen; ostiralean alebinak Albizturren; eta larunbatetan beste maila guztiak: benjaminak Alegian, infantilak Adunan eta etorkizunekoak Tolosan. «Aurretik bost herri horietan aritu gara beti eta aurren hala mantendu dugu, baina datorren urtean Leitzaldera ere zabaltzea nahiko genuke», adierazi du Galarragak.

Eskolarren mailetan ligaxka sistema erabiliko dute, bikote-

MAILAK ▶

Hauek dira HITZA Pilota Txapelketako mailak, partiduak egunak eta tanto kopurua.

Benjaminak. Alegian. Larunbatetan 16:00etan. 16 tantotara.

Alebinak. Albizturren. Ostiralean 19:00etan. 16 tantotara

Infantilak. Adunan. Larunbatetan 16:00etan. 18

tantotara
Kadeteak. Bidegoianen. Asteazkenean 19:00etan. 18 tantotara. Banaka. Lau t'erdian.

Etorkizunekoak. Tolosako Beotibar pilotalekuan. Larunbatetan 11:00etan. 22 tantotara.

Maila berezia. Tolosako Beotibarren. Larunbatetan 11:00etan. 22 tantotara.

ak taldea banatuz, eta talde bakoitzeko lehena sailkatuko da hurrengo fasera. Federa-

tuen artean —kadeteak eta etorkizunekoak—, kanporaketa sistema erabiliko dute.



Aktore txiki handiak

ANTZERKI TOPAKETA ▶ Albizturko, Bidegoiango, Errezilgo eta Aizarnako eskoletako ikasleek Errezilen elkartu ziren atzo antzerki emanaldia eskaintzeko —argazkian Errezilgo eskolakoak antzeztzen, gainontzekoak lekukoa hartzeko prest daudelarik—. Topaketa hauek duela urte batzuk hasi ziren antolatzen lau herri hauen artean. Umeek egunpasa egiten dute dagokion herrian, otordua ere bertan egiten dutelarik. Atzo nor baino nor aritu ziren taula gainean eskaini zuten antzezlanetan eta barneko artista txikia atera zuten. N. LATABURU

**UDABERRIA ODOL
BEBIAREN ITURBIA BALIA
KAZU GURESKAINTZA
BEBEZIAKI**

Gure eskaintza bereziki gain, PICNIC-eko burusi bit oparituko ditugu, soilik aurrerakotua eskatzeagatik*

Hasieratik duteen sari partiduak gurekin gaituzte

LAGUN ARO
SEGURON - ABERRIAN
Beti lagun jarraitzen

IBARRA ▶

Eider Ijurkoren urtebetetze argazkia gaur

Gaur egingo da Eider Ijurkoren urtebetetzerako argazkia Ibarako plazan 19:30ean, datorren asteazkenean beteko baititu 24 urte. Bestalde, Maite Aranaldere eta Haimar Altunaren senideek kartzelaratu zituztenetik hilabete igaro denean bisitarik ezin izan dutela egin salatu dute.

IBARRA ▶

Festa Batzordearen bilkura

Astehenean 19:30ean Kultur Etxean Festa Batzordearen bilkura egingo da, San Bartolome jaien antolaketa-rekin jarraitzeko. Herritar guztiak gonbidatuta daude.

TXARAMA ▶

Herriko jaiak antolatzeko bilera gaur 20:00etan

Gaur 20:00etan bilera egingo da medikuaren lokalean Txaramako jaiak antolatzeko. Festa Batzordeak herritarren parte-hartzea eskatu du.

IBARRA ▶

Igandean amaituko da Olinpiada txikia

Hauspoak antolaturiko XII. Olinpiada Txikian, bihar Gazte Asanbladak antolaturiko jokoak egingo dituzte 16:30ean plazan. Aurretik bolotan ariko dira 15:30ean Emeterio Arresen. 19:30ean ardo dastaketa proba izango da. Igandean, ibilaldi neurtua, sukaldaritza lehiaketa eta bazkaria izango dira.

**Bisitari asko 'Ahaggar' en**

BELAUNTZA ▶ Belauntzako Udalak Iñaki Edrosoren *Ahaggar* argazki erakusketa antolatu du hilaren 11tik 18era. Bertan Aljeriako basamortuko argazkiak ikusi dituzte 125 lagun inguruk. Dunak, harkaitzak eta ehundurak ikusteaz gain haur eta heldu nobleen erretratuak ere ezagutu dituzte. HITZA

Edertasuna zaintzen

BIDEGOIAN ▶ Emakumeen jardunaldien harira, automakillaje ikastaroa antolatu dute azken egunotan, Karmen Larrarteren gidaritzapean. Jardunaldi hauekin amaitzeko, gaur, 22:00etan afaria egingo dute Bidegoiango Kontzeju jatetxean. Jarriko al dituzte praktikan ikasitakoak? NOELIA LATABURU

ZIZURKIL ▶ NEKAZARITZA

Eskaltzu mendiko I. Larre Irekiera egingo da bihar

12:00etan Ziortzako langan izango da, Eskaltzugain elkarteak antolatuta

IÑIGO TERRADILLOS
NOELIA LATABURU

Bihar, Eskaltzu mendiko I. Larre Irekiera egingo da 12:00etan Ziortzako langan Eskaltzugain abeltzain elkarteak antolaturik.

Proiektu honen helburuak lurra paisaiaren aldetik duen balioa berreskuratzea, bertan dabilen ganaduaren saneamendu eta kontrola egitea eta eremuaren kudeaketa egokia burutzea dira bereziki.

Eskaltzu mendia, Zaratetik Andatza mendira doan bidean dago. 500 metro inguruko altuera du eta kostaldeko paisaia zoragarria eskaintzen du. Utzitako egoeran zegoen mendi honetan, lurberritze lanak egin ondoren, bere potentziala berreskuratzea lortu dute eta be-



I. Larre Irekiera antolatu du Eskaltzugain abeltzain elkarteak. HITZA

rriz ere ganadua larrean ikusteko aukera izango da bertan. Bestalde, Eskaltzuko lursaila jabetza pribatuko lursail txikiz osaturik dago. Zizurkilgo Uda-

lak, lur horien potentziala berreskuratze asmoz, lurjabe horiekin 15 urterako lurra uzterko hitzarmen bat sinatu berri du.

Otadiak diren eremuak berreskuratuz eta abeltzaintzarako erabiliz, «ekonomikoki ja-sangarriak izan daitezkeen us-tiakuntzak lor daitezkeela» uste dute Eskaltzugain abeltzain elkarteok eta nekazaritzako lanpostuak eta errentak sortzeko aukera emango du-lakoan daude, ez bakarrik le-hengaien ekoizpenean, lehen-gai horien eraldaketan ere bai. Eskaltzugain abeltzain elkar-tea 2003. urtean sortu zen eta Zizurkilgo 8 abeltzainez osatu-ta dago. Elkartearen helburuak Zizurkilgo abeltzainak elkar-tzea, elkartekide guztien inte-resak babestu, garatu eta or-dezkatzzea eta abeltzain ekoiz-pena eta azpiegituren hobe-kuntza lortzeko eman daiteken edozein garapen ekintza bul-tzatzea dira, besteak beste.

hitza **txokoa** lagun

HITZAren laguntzaile izan nahi baduzu, deitu

943 30 43 46
(8:30 / 20:30)

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

Astebukaera honetan *Leidorren* emango den 'BE COOL' filmerako 2 sarreraren irabazlea:

JUDITH KORTAJARENA HITZAren harpidedun laguntzaile zizurkildarra.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

LEITZA ▶ FUTBOLA



Baztanekin, azkenean liga eman dioten taldearekin, jokatu zuen azken partidua Aurrerak. J. ASTIBIA

Azkenean bigarren lekua 'eman' diote Aurrera taldeari

Nafarroako Futbol Federazioaren erabakia hori izan da; bihar arratsaldez igoyerako faseari ekinen diote Agoitzen

JAIONE ASTIBIA

Azkenean bukatu berri den Lurraldekako Lehen Mailako liga honetan, bigarren lekua eman diote Aurrera futbol taldeari. Eman diogu, izan ere, leitzarrek liga irabazi zuten uste osoa baitzuten, baina Federazioak horren inguruan oso jakinarazpen kontrajarriak igorri zituzkion taldeari, lehengo aste horretan zehar, «irabazle zela, idatziz; baina, bigarren zela ageri zen, Interneteko orrian», adierazi zioten Hitzari taldeko arduradunek, eta horren aurrean aipatutako Federazio horri argibideak eskatu zitziote-

la. Eta, aste honetan iritsi da erantzuna: Baztanek irabazi du liga, «orain arte, aurka jasotako gol gutxiago dituenak irabazi izan badu ere», zioten leitzarrek, nonbait haiek gol gehiago sartu dituztelako, «Federazioan horretan oinarritu omen dira erabaki hori hartzeko garaian», halaxe jakinarazi ziotela adierazi zuten Aurrerakoek. Beraz, leitzarrek bigarren lekuarekin gelditu dira, «ofizialki», ziotenez.

Kontuak kontu, ordea, eta beraiek ere halaxe adierazi zuten gustura: «Igoera fasea jokatzeke moduan gara eta buru-belarri horri ekin behar

diogu». Eta hain zuzen ere, bihar bertan ekinen ere. Aurreko batean azaldu zenez, Aurrerari (1. taldekoa da), bere taldean 2. lekuan egonik, 2. taldeko 3. arekin, hots Agoitzekin aritzea egokitu zaio, joan-etorriko bi partidua jokatu: bihar arratsaldean Agoitzen, 17:00etan; etorrerako hurrengo igandean. Irabazlea, bi partiduetan garaipena eskuratuz, edo berdinketa kasuan, golik gehien sartu duena igaroko da hurrengo fasera. Hor, beste hainbeste eginda Iruña-Bidezarra bikotetik garaile ateratzen denarekin jokatu beharko du, igoyerako benetakoa.

LEITZA ▶ KULTURA

I. Ipuin Lehiaketako sari banaketa gaur egingen da

Liburutegian egingen den ekitaldian bertan, ipuinen irakurketa ere egingen da

J. ASTIBIA

Gaur arratsaldean, 20:00etatik aurrera Leitzako liburutegian egitekoa duten ekitaldian emanen dute jakitera, I. Ipuin Lehiaketako irabaztuna zein den. Bertan parte hartzeko deialdia egin du Kultur Taldeak.

Ekimen honen antolatzaileek jakitera eman zutenek, ekitaldian sariak banatzeaz gain, «lehiaketa honetara aurkeztu diren lanak, han bertan irakurriko dira», argitu zuten. Hauxe egingen omen dute lehendabiziko gainera, hain justu aurreko asteburuan izandako ipuin-kontakteta ikastaroan

parte hartu zuten hainbat ikasleek egingen ere. Ondoren emanen omen dute jakitera, «irabazle suertatu den ipuinen izenburua».

Honen harira, «bost idazlan jaso genituen lehiaketarako, eta euskara teknikari batek eta idazle batek egin dute epaia erabakitzeko lana», adierazi zuten. Antolatzaileek, zein epaia emanen dutenek ere, ez omen dakite ipuinen egileak zein diren, «lanak aurkezterakoan plika itxian jasotako dira», argitu zuten. Hauxe egingen omen dute lehendabiziko gainera, hain justu aurreko asteburuan izandako ipuin-kontakteta ikastaroan

LEITZA ▶ PILOTA

Bengoetxea-Iparragirre GRAVN-eko finalerditara

Bihar jokatu dute partidua, Labriten, Bizkaiako bikote ordezkariaren aurka

J. ASTIBIA

Ibai Bengoetxea eta Iñaki Iparragirre leitzarrek osatutako bikotea GRAVN pilota torneoko finalerdietan da eta bihar dira jokatzeak, Iruñeko Labrit pilotalekuan egingen ere, 16:30ean hasiko den pilotajaialdiaren barrenean, zehazki 4. partidua izanen delarik beraiena.

Biharko partidutik aterako da finala jokatu duen biga-

rren bikotea. Bikote bat erabakita dago, jokatu dute partidua guztiak irabazi zituztenez, zuzenean sailkatuta: Gipuzkoako ordezkariak dira horiek; eta orain, finaleko beste bikotea erabakitzeke orduan, Bizkaia eta Nafarroa artean dago lehia, izan ere leitzarrekin batera, Bizkaiako ordezkariak, Berasaluze eta Apraiz, baitira azken txanpa horretan borrokan dabiltzanak. Irabaztunek, finaleko txartela lortuko dute.

iragarki laburrak ▶



Abaltzisketa. Sei etxe atxiki: lehen solairuan, sukaldea, egongela, bainugela eta terraza; bigarren solairuan, hiru logela, bat bainuarekin, bainugela eta bi terraza; bi autorentzako garajea eta bokoa beheko solairuan.

Anoeta. Duplex etxebizitza estreinatzeke. 4 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, terraza eta garajea aukeran.

Belautza. 1.060 m²-ko pabilioia; oso argitsua eta garabiarekin.

Belautza. 225 m²-ko pabilioia alokairuan eskaintzen da. Prestatuta.

Bidanía. Bi familierentzat egokituriko sei etxe. Lehenengo solairuan garajea, sukaldea, egongela, bainugela eta terraza. Bigarren solairuan, hiru logela, bainugela eta terraza.

Donostia. Gros. 70 m²-ko duplex zoragarria Sagues aldean. **Berritua.**

Donostia. Donostizarran (Aiete-Muntto), 75 m²-ko etxebizitza. Kanpoaldera, oso eguzkitsua eta itsasora begira.

Ibarra. Nekazal ustiapenerako egokia den 75 m²-ko pabilioia eta 2.500 m²-ko lur saila salgai.

Ibarra. 85 m²-ko etxebizitza. Kanpoaldera. Bizitzera sartzeko. **Garajea aukeran.**

Ibarra. Laster berrikuntza beharko duen eta bi solairu dituen etxea salgai. Garajea eta lur sailarekin.

Lasarte. 65 m² erabilgarriko etxebizitza salgai Oztaran kalean. Kanpoaldera. **Eguzkitsua.**

Lizartza. 14.000 m²-ko pabilioiak salgai, 320, 400, 625 eta 922 m²-ko moduluetan, eraikuntza berrikoak.

Tolosa. Santa Klara kalean, 90 m² dituen etxebizitza berritua salgai. Atzealdean baratxioarekin.

Tolosa. Gernikako Arbolan, 155 m²-ko etxebizitza salgai, kanpoaldera, berritzeke.

Tolosa. Gudari kalean, Samaniego kalearekin iskinean, 110 m²-ko etxebizitza salgai. Kanpoaldera, eta oso eguzkitsua. Igogailuarekin. **Berritzeke premia.**

Tolosa. Agintari kalean, eraikuntza berriko 75 m²-ko etxebizitza salgai. Igogailua eta trastelekuarekin.

Urretxu. 780 m²-ko pabilioia, 300 m²-ko plantarrea, instalakuntza guztiak, erakusketa zabal.

